2022ko apirilean erregistratutako langabezia

2022ko apirilean zehar LANBIDEko bulegoetan % 1,31 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 115.554 da, aurreko hilean baino 1.531 gutxiago. Apirileko datuak positiboak izan ohi dira; hil honetako datua azken 15 urtetako seigarren onena da.



	api.-08	api. -09	api-.10	api. 11	api. 12	api. 13	api. 14	api. 15	api. 16	api. 17	api. 18	api. 19	api. 20	api. 21	api. 22
Saldoa	-883	1.021	-3.82	1.604	-22	-752	-75	-3.96	-1.37	-1.14	-2.26	-2.30	10.43	-3.03	-1531

Aurreko urteko apirilarekin alderatuz, 11.428 pertsonatan murriztu da langabezia. Errekuperazio azkar baten ondotik, urte-arteko saldoaren hobekuntza moteltzen ari da. V erako profila du krisiak; langabeziaren hazkunde azkar eta haundi baten ondotik, ezaugarri berberak dituen errekuperazioa.



- **SEXUA**

Azken hilabetean, bai gizonezko zein emakumezkoen artean murriztu egin da langabezia (-793 eta -738, hurrenez hurren). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-6.316) emakumezkoen arten baino (-5.112). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa izan dute. 2019ko apirilarekin alderatuz, 398 gizonezko gehiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 398 gutxiago dira. Gaur egun langabeen % 56,7 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan murriztu egin da. Gorakada handiena 30 urtetik beherakoen artean erregistratu da (+%1,80); 30-44 adin tarteak jarraitu dio (+% 0,83), eta, 45 urtetik gorakoen artean %1,03 jaitsi da. Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; nabarmentzekoak dira 30 eta 44 urte bitartekoen artean eman den murrizketa (% -15,71) eta 30 urtetik beherakoen artean eman dena (%-13,64). 45 urtetik gorakoen artean %4,92 murriztu da soilik.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Apirilean, langabezia sektore guztietan murriztu da industria sektorean izan ezik (+% 0,83). Gehien, lehen sektorean murriztu da (-% 2,17) eta gutxien industrian (-0,75%). Lan-esperientziarik ez dutenen artean % 1,07 murriztu da langabezia hil honetan. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da industrian (-% 12,43), eraikuntzan (%-8,86) eta zerbitzu sektorean (-% 8,47) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 8,97 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

78 Enpleguarekin loturiko jarduerak ..... -222

56 Janari eta edarien zerbitzua ..... - 217

87 Egoitza-establezimenduetako laguntza ..... -132

82 Bulegoko administrazio-jarduerak eta beste enpresa laguntzaile batzuk ..... -103

81 Eraikinetako zerbitzuak eta lorezaintza-zerbitzuak ..... -90

Aitzitik, apirilean erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

85 Hezkuntza ..... +106

43 Eraikuntza espezializatuko jarduerak ..... +42

25 Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik ..... +32

27 Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa ..... +29

24 Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko produktuak ..... +24

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 628 pertsonatan murriztu da (-% 1,07) eta epe laburrekoa, ere, murriztu egin da (903 pertsona gutxiago, -% 1,54). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa nabarmen txikiagoa eman da (-% 0,03) epe luzekoen

aldean (-%16,45). Krisiaren luzatzeak epe luzeko langabezia nabarmen jaistea eragin zuen; gaur egun, zorionez, bestelakotzen ari da egoera; 57.596 langabe iraupen luzekoak dira, langabe guztien % 49,8a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Apirileko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,09 murriztu da, martxoan baino 217 langabe gutxiago, 19.683 langabe guztira. Gipuzkoan % 1,16 murriztu da, 360 pertsona gutxiago daude langabezian martxoarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 30.791koa da) hil honetan bilakaera okerrena erregistratu duen lurraldea izan da. Azkenik, Bizkaian, martxoan baino 954 langabe gutxiago daude (% 1,44ko murrizketa), langabetu kopurua 65.080 da; portzentualki bilakaera onena izan duen lurraldea da

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio hoberena % 9,16ko murrizketarekin; Arabak jarraitzen dio % 9,16ko murrizketarekin eta azkenik Gipuzkoan % 8,66 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean langabezia 279 pertsonatan murriztu da (-% 1,23), Vitoria-Gasteizen 219 pertsonatan murriztu da (-% 1,42) eta Donostian 155 pertsonatan murriztu da (-% 2,02). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezkerraldea (-205), Durangaldea (-104) eta Uribealdea (-93) izan dira. Bestalde Tolosaldea (+40), Aiarako bailara (+34) eta Urola-Garaia (+24) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 18,15), Sestao (% 17,32), Lanestosa (% 17,27), Alonsotegi (% 17,18) eta Lapuebla de Labarca (% 16,42).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2022ko apirilean 37.909 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 868 langabe gutxiagok. Langabeen % 32,8k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea du. 20.781 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18 dira horiek. 17.128 langabek (% 14,8), berriz, langabezia prestazioaren bat jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,2), Bizkaian % 31,9koa da eta Araban % 32koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0,31 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz ere murriztu egin da, 0,83 puntu hain zuzen ere.

Apirilean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua jaitsi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

- **JATORRIA**

Langabeen % 16,5 (19.070 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia gutxiago murriztu da atzerritarren artean (-% 0,78) bertakoen artean baino (-% 1,41). Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 7,93 murriztu da, eta bertakoen artean % 9,21.

Langabe atzerritarren % 33,9 Afrika iparraldekoak dira, % 23,2 Latinoamerikatik datoz, % 18 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,5 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6, azkenik, Asiatik. Apirilean Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-93); Afrika iparraldetik etorritakoen artean, aldiz, hazi da gehien (+25).

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 61ek (70.454 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 1.047 langabetu gutxiago erregistratu dira; % 1,46 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 8,24 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9 dira. Talde horretan % 1,69 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 9,84 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.190 dira, hau da, langabeen % 18,4. Talde hau apirilean zehar % 1,44 murriztu da, eta azken urtean % 9,79.

Azkenik, langabeen % 11,7k (13.523 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 0,20 hazi da langabezia azken hilabetean eta, aldiz, % 10,99 murriztu da azken urtean.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 86.260 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 2,77ko beherakada). Guztira 3.022.503 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 1,31 jaitsi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 2,83 murriztu da, Errioxan % 2,88 murriztu, Kantabrian % 3,85 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 2,22 murriztu. Katalunian % 1,83 murriztu da eta Madrilen ere murriztu egin da; % 3,22 hain zuzen ere.

Lan-eskatzaile langabeak 2022eko apirilean

	Api-2022	Mar-2022	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	50.070	50.863	-793	-1,56
EMAKUMEZKOAK	65.484	66.222	-738	-1,11
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.783	19.429	-646	-3,32
GIZONEZKOAK	9.146	9.515	-369	-3,88
EMAKUMEZKOAK	9.637	9.914	-277	-2,79
25-44 URTE:				
GUZTIRA	35.146	35.766	-620	-1,73
GIZONEZKOAK	13.966	14.351	-385	-2,68
EMAKUMEZKOAK	21.180	21.415	-235	-1,10
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	61.625	61.890	-265	-0,43
GIZONEZKOAK	26.958	26.997	-39	-0,14
EMAKUMEZKOAK	34.667	34.893	-226	-0,65
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.530	2.586	-56	-2,17
INDUSTRIA	12.773	12.870	-97	-0,75
ERAIKUNTZA	7.515	7.453	62	0,83
ZERBITZUAK	77.8885	79.134	-1.279	-1,62
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.881	15.042	-161	-1,07
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.683	19.900	-217	-1,09
BIZKAIA	65.080	66.034	-954	-1,44
GIPUZKOA	30.791	31.151	-360	-1,16
EAE	**115.554**	**117.085**	**-1.531**	**-1,31**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.968	10,6%	-81	-2,00	-410	-9,37
Oarsoaldea	3.607	9,8%	-49	-1,34	-348	-8,80
Donostia-S.Seb.	7.519	8,5%	-155	-2,02	-1.018	-11,92
Donost.Mendebaldea	3.043	8,1%	-52	-1,68	-275	-8,29
Tolosaldea	1.964	8,3%	40	2,08	-191	-8,86
Urola Erdia	1.203	7,7%	0	0,00	-86	-6,67
Goiherri	1.667	7,7%	4	0,24	-72	-4,14
Deba Garaia	2.405	7,9%	1	0,04	-140	-5,50
Deba Behera	2.739	10,4%	-30	-1,08	-122	-4,26
Urola Garaia	1.101	9,0%	24	2,23	-69	-5,90
Urola Kosta	1.575	6,9%	-62	-3,79	-188	-10,66
GIPUZKOA	**30.791**	**8,7%**	**-360**	**-1,16**	**-2.919**	**-8,66**
Vitoria-Gasteiz	15.221	12,1%	-219	-1,42	-1.572	-9,36
Aialako Ibarra	2.256	12,1%	34	1,53	-213	-8,63
Arabar Errioxa	674	12,5%	-35	-4,94	-106	-13,59
Arabako lautada	724	9,5%	-25	-3,34	-37	-4,86
Gorbeia inguruak	311	6,6%	-6	-1,89	-21	-6,33
Arabako Ibarrak	424	8,3%	-9	-2,08	-32	-7,02
Arabako Mendialdea	97	6,2%	3	3,19	-26	-21,14
ARABA	**19.683**	**11,8%**	**-217**	**-1,09**	**-1.950**	**-9,01**
Gobela	4.616	9,2%	-77	-1,64	-578	-11,13
Txorierri	2.151	9,4%	-17	-0,78	-319	-12,91
Uribealdea	2.933	8,8%	-93	-3,07	-385	-11,60
Durangaldea	3.285	8,9%	-104	-3,07	-351	-9,65
Busturialdea	2.110	9,8%	-12	-0,57	-303	-12,56
Lea-Artibai	952	7,9%	-77	-7,48	-68	-6,67
Enkarterriak	1.986	13,0%	-11	-0,55	-141	-6,63
Arratia-Zornotza	1.494	8,6%	-43	-2,80	-133	-8,17
Arratia-Nerbioi	1.335	10,4%	15	1,14	-85	-5,99
Bilbo	22.460	13,3%	-279	-1,23	-2.053	-8,38
Ezkerraldea	17.144	13,8%	-205	-1,18	-1.641	-8,74
Ibaizabal	4.531	11,3%	-51	-1,11	-483	-9,63
BIZKAIA	**65.080**	**11,7%**	**-954**	**-1,44**	**-6.559**	**-9,16**
EAE	**115.554**	**10,7%**	**-1.531**	**-1,31**	**-11.428**	**-9,00**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.